

Karl Drais



Karlsruhe, 1785eko apirilaren 29an jaio zen

Karlsruhe, 1851eko abenduaren 10ean hil zen

Biografia txikia

Karl Drais, Karl Friedrich Christian Ludwig, Baroia Drais von Sauerbronn lehena bataiatuta izan zen, Badengo Dukesaentzat ingenierio gisa egin zuen lan . Geroago lana utzi zuen soldata mantenduz eta asmatzaile gisa hasi zen. Gauza asko asmatu zituen besteak beste: nota musikalak idazteko tresna bat, hamasei karakter idazteko makina bat, lau gurpileko bi automobil eta azkenean garrantsitzuena: bizikleta.

Mannheimen, 1817ko ekainaren 12 an bizikleta aurkeztu zen lehenengoz, gizakiak mugituko bi gurpileko lehenengo garraiobidea zen eta honi esker zaldirik gabeko lehenengo garraiobidea lortu zen. Urte batzuk geroago Pierre Michauxek hobetu zuen pedaleak ipiniz, eta hórrela gaur egun ezagutzen dugun bezala bihurtu zen. Urte geroago asmakizun honi esker Carl Benzek automobila garatu zuen.

Asmakizun hauek eskertzeko Carl Dukeak Draisi pentsio batekin saritu zion eta mekanika zientziak irakasle izendatu zuen. Trenbideetako bagoi txikiekin egindako esperimentuak eskuzko trenbidea asmatu zuen. Asmakizun honek Draisine izena du alemanez.

Drais demokrata amorratua zen eta European 1848an, iraultzeenalde egon zen eta von titulua kendu zion bere buruari 1849an. Badengo iraultzaren bukaeran, monarkiaren jarraitzaileek porrot egion zioten. Bere heriotzaren ostean etsaiek bere asmakizunak gaitzetsi zizkieten.

Biografia berria

Hans-Erhard Lessing Doktoreak biografia berria idatzi zuen ikerketetan oinarritua. Orain Drais, gazte azkarra eta langile modukoa agertzen da, demokrata bihurtua 1849an, azken 150 urteetan ezagutu genuen gaztea guztiz desberdina da.

Karl Von Drais 1785eko apirilaren 29an jaio zen Karlsruhe, Badengo hiriburuan, Karl Wilhelm Friedrich Ludwig funtzionario nagusia eta Ernestina Christine Margaretha, Kalten thalengo Baroisa ziren gurasoak. Familia ez zen aberatsa, baina eragin handia zeukaten, zeren eta Badengo Dukea, Karl-Friedrich, Karlen aitabitxia zen, eta berak lan postu eskeini zion administrazioan. Karl Drais eskolara joan zen Karlsruhe, 1800. urtean lizeoa bukatu zuen eta Pforzheimera joan zen, han administrazioko eskola pribatu batean parte hartu zuen, zuzendaria Friedrich Heinrich Georg von Drais izekoa zen. Gazteentzat lan egiteko aukerak oso urriak ziren, beraz 1803an Draisek matematika, fisika eta arkitektura ikastea erabaki zuen Badengo unibertsitatean 1805. urtera arte. Orduan Badengo administrazioko kide bihurtu zen, baina karrera utzi zuen asmatzeari eta ikasteari ekiteko. Aita Badengo Epaile Nagusia izendatu zuten eta familia osoa Mannheimera mugitu zen 1810ean. Hurrengo urtean Karl Draisek lana utzi zuen, soldata mantenduz eta Mannheimera ere joan zen. Gauza asko asmatu zituen, besteak beste paperean nota musikalak grabatzeko tresna bat (1812) eta lau gurpileko bi ibilgailu gizakiaren indarren bidez mugitua (1813/14), azken hau Vienan aurkeztu zuen Napoleonen erorialdiaren ostean. Matematika ekuazio arazoak argitaratu zituen, baina asmakizunik garrantzitsuena bi gurpileko belozipeda zen, Draisine izenekoa.



Ibilgailuak asmatu eta gero Draisek erreakzio ezezkorrak jaso zituen 1812an. Azkenik sumendi baten izugarritzko erupzioak (1815eko apirilean, Indonesian Tambora mendia izenekoa) atmosferara hainbeste errauts bota zuen zeren eta European 1816ko udan elurra egin zuen, zaldiak hil behar zituzten janaririk ezean. Beraz, belozipedoak izugarritzko garrantzia hartu zuen bidaiatzeko. 1817ko ekainaren 12an, osteguna lehenengo bidaia egin zuen Mannheimetik Schwetzingenera, Badengo errepedierik onena hartuz. 7,5 km egin ondoren (distantzia osoaren erdia) Schwetzingen Relaishausera abiatu eta etxerantz joan zen. Bidaiak ordu bete iraun zuen eta oso arrakastua izan zen. Baina zoritarrez ezin izan zuen asmakizuna merkataratu dirua irabazteko.

Badengo zerbitzari zibila izanda eta saldata kobratuz lan egin gabe, ezin zuen empresa bat jabetu. Gutxienez, administrazioko lizentziarik ez zuen arren, Carl dukeak 1818an 10 urteko babespena eskeini zion bere asmakizunareko eta mekanika zientziak irakaslea izendatu zuen, pentsioaz aparte.

Bideetatik gurdi asko ibiltzen zirenez orekari eustea oso zaila zen. Beraz, espaloietatik joatea erabaki zuten lauak ziren eta, baina horrela ibiltarien bizitza arriskuan ipintzen zen.


Alemaniko, EEBBetako, Britania Handiko eta Kanadiako agintariek debekuak eta izunak ipintzen hasi ziren eta hau dela eta txirrindulariaren kopurua murriztu egin zen.

1822an Karl Dreis Brasilera bidaiatu zen non topografo gisa egin zuen lan. 1827an Manheimera itzultzerakoan 16 karakter estenografoa asmatu zuen. Aitaren heriotzaren ondoren 1830ean Draisek lagunak galdu zituen eta etsaiek inbidia zioten. 1838an hilketa ahaleginaren ostean bizirik atera zen eta 1839tik 1845era arte Waldkatzenbach hirian bizi zen, Odenwalden mendietan. Denboraldi honetan oinekin gidatua errailko ibilgailu batekin saiakuntzak egin zituen (horregaitik gaur egungo eskuko trenbideari Draisina deitzen zaio). Azkenik Karl Drais Karlsruheera bueltatu zen.

Drais demokrata amorratua zen eta Badengo iraultzaren alde egon zen. "Von" aristokrata tituluari uko egin zion 1849an. Iraultzaren ostean, Drais egoera negargarrian zegoen. Monarkiaren jarraitzaileak zorotzat hartu zuten eta psikiatriko batean sartzen saiatu ziren. Bere pentsioa konfiskatu zuten Prusiako armaden okupazioa ordaintzeko. Karl Drais galtzaile hil zen Karlsruheen, 1851eko abenduaren 10ean.

Dr. Gerd Hüttmann

Eskerrik Asko Aintzane Gutierrez Landa



Alemaniazko zigilu-saila bat "Alemaniako historiko bizikletak 1817tik 1925era" Karl Drais urtebetetzearen 200garren urteurrenaren oroimenez (Alemaniako Errepublika Federala, 1985)

Bibliografia

Hans-Erhard Lessing, Automovilidad Karl Drais y el increíble comienzo. Editorial MAXIME,

Leipzig; 2003, 528 paginas. 32 Euros, ISBN 3-9311965-22-8, publicado en alemán.

Karl Drais – Biografia berria
© 2012 Aintzane Gutierrez Landa
ADFC Allgemeiner Deutscher Fahrrad-Club Mannheim
<http://www.karl-drais.de>

